



# BILBOKO EMAKUMEZKOEN ANTZIÑAKO LANBIDEAK

Emakumeen lanbideari buruzko dokumentu ta agirien arabera Bilboko iriaren ia 700 urteko istorian zear emakumek funtsezko lanbidetan jardun eben. Erdi Aroko kaleetan ekoizteko jardueraren batean ari ziran andrazko asko egozan, merkatu elikaduran, jantziak egiten, edo ta bizitokiak egokitzeko arloetan. Arresi barruko iribilduaren ornidura oso garrantzizkoa zan. Errekardariak Erriberako merkatua egin eben. Errekardariak ordenantzen arabera andrazkoak ziran “regateras” agertzen da eta. Errekardariak fruta, barazkiak, egaztiak, ogia ta arraiña saltzeaz arduratuten ziran.

1477an, Lenengo Ordenantzaren izenburua dauenak sardinari buruz diardau. Sardina freskoak, Portugalete, Castro, Laredo, Bermeo ta Plentziako irietatik eltzen ziran. Udalbatzarrak agintzen eban, irira eldu ta pisatuta, lenengo bertako andreai saltzeko eta kanpokoei ostean.

Aitatu bear doguz emakume “baserritarrak”. Begoña edo Basurtu aldean Bilboko merkatura errietatik astoz, gurdiz, eta geienak, oñez ainbat kilometro egiañez, otzarakaz edo zama buruan, etorten ziran

emakumeak ikusi oi ziran. Asuako ibarrakoak, ordea, erre kardien treña eriotzoenean etorten ziran.

Burtsa sortu baño len, orain dala 500 urte, ba ziran merkataria-azterkariak, au da, besteen kontura saltzen eben emakumeak. Udal baimena eskatu ta fidantza jarri bear eben.

Bilbora etorri zein Bilbotik abiatzen ziran itsasontzietako zamalanak emakumeak egiten ebezan.

Emakume zamaketariak, lepakari ta fardelkarizat jotzen ebezan, geienbat gizonezkoei jagokena

izanik. Emakume oneik buruan eroaten ebezan fardel astunak Erripa eta Uribitarteko kaietan, ikatz, makallao edo ostantxeko zamalanak egiñez, soldata kaxkar baten truke.

Itsasontziak, andiegiak ziralako edo mareek isten ezeutsielako, Bilboko kaietaraño eltzerik ez ebenean, zirgariak, zirga deritzen sokak buruari loturik, itsasadarren ertzetatik etortzen ziran oñez, gabarretatik tiraka. Lanbide gogorra, benetan, biren artean egin oi ebena.

Erdi Aroan elikatzea zan bearrrik nagusia eta ogiak bere biziko garrantzia eukan.

Euskal-Errian gari askorik ez eta importatu bearra egoan; gañera, ogia egiteko artatxiki eta garagar-iriña be erabiltzen ziran. Udalbatzak, arrain eta sardiñeagaz antzera jokatzuz, garia lenengo, irira ekartea erabagi eban, eta gero beste leku batzuetara eroateko aukera emon.


Emakume-giroa egoan ogilabeetan be eta lan jardunean, egurra zala, ogiak zirala, okiñek zein labakariak, pisu andiak garraiatzen zituzten buru gañean.

Errejimen Zarrean emakume guztiek eukan jantziak eta eunak egiteko ardurea; are geiago, batzuk linoa ereitetik jantzia edo egin arteko egiteko guztiez arduratzen ziran, artillea garramatuz eta irunez. Baserriak urrin egoteak ekarri ebezan beste artisa-lan eta eskulan batzuk; euleek garrantzi andia eukan eta testamentuetan, maiz, eugintzakoak ziran, isten ebezan bakarrak.

Ona emen zelan sortu ziran entzute andiko Bilboko jostun edo modistatxuak.

Erdi Arotik, Bilboko erroldetan, andrazko geiago egon dira gizonetzko baño. Bitxikeri au irian iñoren serbitzutan la egin daben emakume-kopuru andiei zor jakie.

1.566an udalaren esanetan iria "emakume alfer, seme-alaba bako eta emagaldur asko egoan.



1.597an, ezkondata edo iñoren serbitzuan ez egoazenentzat 200ko zigorraldia dekretatu eben.

1.894an, 6.000 neskame egozan etxeko lanetan eta emakume guztiak 17.500 zirala kontutan artzen ba dogu, orrek esan naidau landun geienak neskameztan ebiltzala; izan be, eunetik 34 egozan iñoren serbitzuan.

Irian bizilagun guztientzat bizitokia aurkitzeko problema, Zazpi kaleetako arrabaletan lan

egiten eben andra ostalari eta tabernariak konpondu eben. Euren etxeetan, janaria prestatu eta garbiketa-lanez arduratuz, ostatua ematen eben emakume areik, urtenbidea emon eutsoen bizileku arazoari.

Gaur egungo malla gastronomi-koa erdietsi ba dogu, belanez belanaldi, ortan lanean ibilli diran emakumeengaitik izan da.

Urte batzuk beranduago asi ziran izen andi-andiko Jatetxeak. "Amparo"na esate baterako.

Eurak izan ziran Bilbon nazio arteko euskal sukaldaritzari asiera emon eutsienak, gaur egun sukaldaririk sonatuenak gizonetzkoak badira be.

Beste lanbide bat: Iñude, aña edo amaiñudek euren bularrez besteren señaik azi dabez mendeetan. Txikiak, urikoak edo emakume langille, ezkongabe zein prostitutenak izanez gero, udalari jagokon iñudetza. Goimallakoen artean, ordea, beti egon da lan onetarako iñudeak eukiteko oitura.

Langille talde bat be bazan "se-rrora edo freilena". Gaxo zain edo ospitalario auk ez ziran monjak, izenak izen. Batzuk, ezkondu be egiten ziran eta ospitaletik urrean bizi ziran.

Ospitalean lan egin eta bertan biziteko lizentziak udalbatzarrak emoten ebazenez, leentasuna eukiten eben Bilbokoek.

Aitatu bear dogu antziñatik aritu zirala emakumezkoak emagin, au da, beste emakumeei erditzen lagunduten.







Azkenez esan daigun zeozer “freilari edo serorari” buruz. Andre auek gizarteko ekitaldi nagusiak antolatuten ebezan; ala nola, ezkontzak, jaiotzak eta eriotzak. Eginkizun barruan egozan segizio, musika, ildakoaren omenezko itzak zein beilaldiak antolatutea.

Orrez gain, bere zainpeko ondaren inbentarioa egin eta eleizea garbituten eben. Geroago baten sakristauek ordezkatu ebezan.

Beste batzuk pertsona gaxoak zeinduten ebezan euren etxeetan. Lenengo letrak erakusten eutsiezan erritarrai gaur egun ezagututen doguzan maistra, musikari eta idalleen aitzindariak.

Santiagotik San Nikolasera edatzen zan Areatzako padura edo ondartzako betelanean ibilli ziran emakumeak. Alantxe agertuten da 1.509an aldarrikatu ziran Udalaren aginduetan.

Urte batzuk geroago, 1.593ko agorraren 22ko uoldeen ondorioz ondarrak atara ta garbituteko egin bear izan ebezan lanetan, emakumezkoek eta gizonezkoen ibilli ziran, gizonei lanagaitik ordainduz baña emakumezkoek, bapez.

**Agustiñek, erderaz.  
Klaudiok, bizkaieraz egokituta.**

